



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

GIZARTEAREN ETA INGURUMENAREN ALORREAN IRAUNKORRA DEN HIRI BERRIAREN GARAPENA

1. ARDATZA 4. ARDATZA. ETXEBIZITZA BABESTUA ZABALTZEKO AHALEGIN HANDIA EGITEA, HALA KOPURUARI NOLA TIPOLOGIEI DAGOKIENEZ

1.1 HELBURU NAGUSIAK

- 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren helburu nagusietako bat etxebizitza babestuaren eskaintza zabaltzea da, hala kuantitatiboki (zenbat) nola kualitatiboki (etxebizitza babestuen mota desberdinak).
- 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planak EAEn etxebizitza babestuen eraikuntza handitzea du helburu. Zehazki, Planaren testuinguruan 27.000 etxebizitza sustatzeko helburua ezarri da, eta kopuru horrek 2002-2005eko Planean ezarritako 16.200 etxebizitzaren helburua % 67an gainditzen du eta 2000-2003ko Planean ezarritako 14.000 etxebizitza babestuen helburua % 93an.
- Gainera, kontuan izanik etxebizitza-premiak bizikidetzaren unitateak modu desberdinean ukitzen dituela adinaren, osakeraren, bizitzeko ikuspuntuen, diru-sarreraren mailaren eta abarren arabera, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza babestuen tipologiaren aniztasuna bultzatuko du, premia-egoera desberdinekin doikuntza-maila handiagoa lortzeko.
- Bi helburu-mota horiek, kuantitatiboak eta kualitatiboak, elkartuz, Etxebizitza Bideratzeko Planak etxebizitza lortzeko zailtasunik handienak dituzten kolektiboentzako etxebizitzaren sustapenean arreta berezia jartzea aurreikusi du. Horregatik, 2006-2009ko Planak arreta berezia eskaintzen die etxebizitza sozialari, zuzkidura-alojamenduei eta alokairuko Babes Ofizialeko Etxebizitzari, ekipamendu-mota horiek gizarte-eskari horri arreta hobea eta handiagoa eskaintzeko, eta euskal gizarteak etxebizitzaren alorrean dituen eta etorkizunean izan ditzakeen premien zerbitzurako alokairu publikoko parke iraunkor edo erdi-iraunkor bat eratzeko aukera ematen dutelako.
- Hala ere, etxebizitza babestua, erregimen orokorrekoa, erregimen tasatukoa, jabetzakoa edo azalera-eskubidekoa dela ere, tresna erabilgarria da etxebizitzari buruzko euskal politiketarako, euskal gizartearen geruza askotan eragina izan dezakeelako.
- Lurzoruaren alorrean, Etxebizitza Bideratzeko Planaren helburu nagusia dagoeneko erabilia dauden lurzoruak hobeto aprobetxatzea da, lurzoru degradatuak berreskuratzeko eragiketak bultzatuz, eta kaltetuta dauden eraikinen edota auzoen gizarte- eta hirigintza-eraberritzerako jardun integralen bitartez. Planak oreka bat bilatu nahi du hirigune nagusiei lotutako eragiketa handien bitartez egiten den lurzoru-premien lurralde-estalduraren eta neurri txikiagoko esparrutan egiten diren jardunen kokaeraren artean.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

B.1 koadroa 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren helburu kuantitatiboak

(jardun kopurua)

JARDUNA	2000-03	2002-05	2006-09	% Δ s/02-05
Etxebizitzen sustapena	14.000	16.200	27.000	67
- Alokatzeko	6.800	7.300	8.500	16
- Saltzeko	7.200	8.900	18.500	108
Hutsik dauden etxebizitzen alokairua	2.200	5.000	5.000 *	--
Etxebizitza babestutzat kalifikatutako lokalak	--	--	750	--
Etxebizitza erabiliak erostea landa-inguruetan	--	--	500	--
GOGOBEKETAKO ESKARIA**	20.300	25.400	33.250	31
Birgaitzea eta hiri-berritzea***	25.000	29.000	41.500	43
Lurzorua lortzea****	18.000	22.600	24.000	6
GUZTIRA	63.300	77.000	98.750	28

*2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren amaieran Biziguneren parkean bizi diren 5.000 maizterretara iristea (ez nahastu 5.000 etxebizitza erakarri eta alokairuan jartzearekin eta dagoeneko dauden 2.000tik gorako etxebizitzetzi gaineratzearekin)

** Kontzeptu horren beste zenbait jardun-ildo biltzen zituen 2000-2003 eta 2002-2005eko Planetan. Horregatik, agertzen den guztizkoa ez dator bat adierazitako zifren baturarekin.

*** 2006-2009ko EBPan honako helburu hauek ponderatzen dira: birgaitze integratuko jardunak, 1,25 ponderazioa; birgaitzeko arrunteko jardunak, 1 ponderazioa.

**** 2006-2009ko EBPan honako helburu hauek ponderatzen dira: hiri-lurzorua pertsonen berralojatzearekin, 2 ponderazioa; industriarako hiri-lurzorua bizitegitarako pasatzen dena, 1,5 ponderazioa; aurreko karga horiek ez dituen hiri-lurzorua edo urbanizagarria, 1 ponderazioa; lurzoru ez-urbanizagarria edo Lurzoru Ondare Publikotarako lurzorua erostea, 0,75 ponderazioa.

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza

2.2 JARDUN ILDOAK

Babes publikoko etxebizitza-tipologiaren dibertsifikazioa

- Babes publikoko etxebizitza-tipologia berrien sorkuntza oso jardunbide garrantzitsua da etxebizitzaren alorreko jardunak dibertsifikatzeko eta premia desberdinei erantzun egokiagoa emateko.
- Tipologia berri horien sorkuntza, Eusko Legebiltzarrak 2006ko ekainaren 30ean onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen eta ondorengo arau-garapenaren bitartez gertatu da. Lehendik ezagunak diren Etxebizitza Sozialaren eta Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren irudiei, Erregimen Tasatu Autonomikoko Babes Ofizialeko Etxebizitzen, Erregimen Bereziko Udal Etxebizitza Tasatuen, Erregimen Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuen eta Berralojatzeko Etxebizitza Babestuen irudiak gaineratzen zaizkie.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

B.2 koadroa Babes publikoko etxebizitzaren tipologia eta babestutako bizitegi-irudi berriak

BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN TIPOLOGIAK
Jarraitzen dute
Erregimen Bereziko Babes Ofizialeko Etxebizitzak edo Etxebizitza Sozialak Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzak
EAEko Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearekin eta horren arau-garapenekin sortuak
Erregimen Tasatu Autonomikoko Babes Ofizialeko Etxebizitzak Erregimen Bereziko Udal Etxebizitza Tasatuak Erregimen Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuak Berralojatzeko Etxebizitza Babestuak
BABESTUTAKO BIZITEGI IRUDI BERRIAK
Zuzkidura-alojamenduak "alokairuan" (gozamen-erregimena, biztantzeko eskubidea, eta antzekoak)

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

- Gainera, berez babes publikoko etxebizitzaren kalifikazioa merezi ez duen arren, Lurzoruari buruzko Legeak beste irudi hau sortzea aurreikusten du: Zuzkidura Alojamenduak "Alokairuan"¹⁴. Ildo horretan, azpimarratu behar da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bereziki Zuzkidura Alojamenduak sustatu nahi dituela, biztanle guztiek, eta bereziki gazteen eta adinekoen kolektiboak bizitegi-premia ase ahal izan dezan bere ezaugarrietara bereziki egokitutako jardun baten bitartez.

Izaera sozialagoa duen etxebizitza babestuaren ñabardura

- Etxebizitza babestuko tipologiaren dibertsifikazioa jardun-formula baliagarria da etxebizitza-premiarik handiena duten kolektiboaren etxebizitza-premiei erantzuteko.
- Zuzkidura-alojamenduek alokairuko etxebizitza sozialaren eta alokairuko BOEren sustapen-jardunak osatuko dituzte, (Ikus 2. Ardatza honi buruzko informazio gehiago lortzeko), eta hutsik dagoen etxebizitza librearen kaptazioa alokairu sozialean jartzeko (Ikus **6. ARDATZA**), lehendik egiten baitziren, eta osorik hartuta, beraz, izaera sozialagoa duen etxebizitza babestuaren eskaintza indartuko da.
- Ildo honi jarraiki, Berralojatzeko Etxebizitza Babestuaren tipologiaren sorkuntzak eta hiri-eraberritzeko jardunetan gertatu ohi diren baldintza berezien onarpena, urrats garrantzitsua dira kasu horietan errealitatera hobeto egokitzen den esku-hartzea burutzeko.

¹⁴ Apartamentu horien ohiko erregimen juridikoa alokairua izango bada ere, ez da baztertu beste modalitate batzuk aztertu eta aplikatzea, adibidez gozamen edo usufruktua eta buztantzeko eskubidea.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Etxebizitza Tasatu Autonomikoak, lehendik etxebizitzako politika publikoen arreta jasotzen ez zuten kolektiboen premia-egoerei arreta eskaintzeko sortu dira. Hala ere, irudi hori beti lehendik egiten ziren jardunen osagarri gisa hartu behar da, Etxebizitza Tasatuen produkzioak ezin baitu atzeratu edo murriztu izaera sozialagoa duten tipologiaren produkzioa. Gainera, gaur egun Babes Ofizialeko Etxebizitza bat eskura dezaketen pertsona gehienek etorkizunean Etxebizitza Tasatu bat eskuratu ahal izango dute, era horretan eskaintza osagarri bat izanik.
- Udal Etxebizitza Tasatuek, bestalde, Udalek etxebizitza-premien arretan parte-hartze aktiboagoa izateko aukera izan dezaten ahalbidetzen dute. Bi tipologia bereizten dira, Erregimen Bereziko Udal Etxebizitza Tasatuak eta Erregimen Orokorrekoak, etxebizitzaren ezaugarrietan eta kolektibo hartzekodunen ezaugarrien malgutasun-maila garrantzitsuarekin.
- Landa-inguruko udalerrien kasu berezian, aurreikusi da Udalen Ordenantzen bitartez irudi hori erabiltzea birgaitze eta eraberritze babestuari pizgarriak emateko. Ildo horretan, Udalek malgutasun hori erabiltzeko konpromisoa hatu dute, etxebizitza-mota horrek udalerriko etxebizitza-premia bereziei modu egokiagoan erantzuteko.
- Edonola ere, definitu gabeko kalifikazio-beharkizunak, lehenetsunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidearekin administrazio publikoentzat, zozketa bidezko esleipena, bigarren eta ondorengo eskualdaketen kontrola, eta ikuskapen- eta zigor-jardunak aplikagarriak izango dira babes publikoko etxebizitza-mota guztietan (Etxebizitza Tasatu Autonomikoak eta Udal Etxebizitza Tasatuak barne).
- Aldi berean, azpimarratu nahi da etxebizitza babestuko tipologiaren dibertsifikazioak aukera emango duela sustapenak ere dibertsifikatzeko, gizarteratze maila handia duen etxebizitza babestuen parke baten sorkuntzan lagunduz eta etorkizunean parkearen egonkortasuna bermatuz.
- Azkenik, jardun espezifikagoa bezala, sustapenari eman beharreko laguntzak kalkulatzeko, Etxebizitza Sozialak Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren antzeko prezioan baloratzeko (bi mota horien produkzio-kostuak antzekoak direnez) neurriak ezartzea aztertuko da, baina batean eta bestean errentak desberdinak izan daitezke lehenengoen izaera sozialagoa dutelako.

Malgutasun handiagoa etxebizitza babestuen diseinuan, arkitekturako eta eraikuntzako dibertsifikazioarekin.

- Aipatu den bezala, ikuspegi kuantitatiboaz gain, 2006-2009ko Planak etxebizitzaren sustapenaren alderdi kualitatiboak ere biltzen ditu. Honi



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

dagokionez, etxebizitza babestuen diseinuan malgutasun handiagoa ahalbidetzen duten jardun-ildoak hartzea komeni da.

- Etxebizitza babestuen Diseinurako Ordenantzek ezarritako araudiaren betetzeak (berez nahiko murriztaileak dira), Udal Ordenantzek ezartzen dituzten baldintzekin batera, oso marjina txikia uzten diote sustatzaileari etxebizitza babestuen diseinuari dagokionez, eta honako paradoxa hau gerta daiteke: araudi hau, printzipioz erabiltzaileari bermea ematen diona, ez izatea oso egokia etxebizitza babestuaren esleipendunaren premietara egokitzeko. Horregatik, etxebizitza guztientzat Udal Ordenantzak eta oinarritzko printzipio autonomiko gutxi batzuk erabiltzea ahalbidetzen duten formulen ezarpena aztertuko da, Udal Ordenantzak dituzten udalerrietan salbu, horietan Babes Ofizialeko Etxebizitzen Ordenantzek arautuko baitute zuzenbide osagarri gisa.
- Aurrekoari loturik, etxebizitza babestuen tamainan aniztasun handiagoa lortzeko formulei arreta berezia eskainiko zaie. Aprobetxamendua kalkulatzeko egungo udal-antolamenduko sistemak (etxebizitza kopurua/azalera) sustatzaileak nahiko azalera handiko etxebizitzak eraikitza bultzatzen ditu, tamaina txikiagoko etxebizitzen sustapenak eraikigarritasuna galtzea ekar dezakeelako. Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeak parametro hori aldatzen du eta sabaiaren m2 lurzorua m2ko terminotan ezartzen du, etxebizitzen azalera eskatzaileen premietara egokitu ahal izateko. Edonola ere, ailaren jardunek etxebizitza berrien batez besteko azalera murriztuko dute, lehen zeudenak baino bizikidetzaren txikiagoen errealitatera egokitzeko. Hala eta guztiz ere, gai horretan funtsezkoa izango da hirigintza-plangintzaren garapenean EAEko Udalerriek hartzen duten jarrera.
- Azkenik, aipatu behar da Zuzkidura Alojamenak ez daudela lehendik aipatutako zenbait murrizketari loturik, eta beraz irudi hori tresna erabilgarria izan daiteke epe laburrean eta ertainean sustapen babestuaren diseinuan aniztasun handiagoa sartzeko.

Ikuspegi berria lurzorua estrategian: lurralde-oreka eta gizarte-eta hirigintza-alorrean degradatuta dauden lurzoru eta auzoen lehengoratzeari bultzada ematea

- Lurzorua alorrean, 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren testuinguruak bi alderdi nagusi ditu: alde batetik, ekainaren 30eko Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen onartzea, lurzoruen plangintza- eta urbanizazio-prozesuetan berritasun garrantzitsuak sartzen dituen, eta aurrekusi da oso eragin positiboa lortuko duela epeak laburtzeari, prozedurak arintzeari eta abarri dagokienez; eta bestalde, lurzoru eraikigarrien (kolonizatu beharreko lurzoruen) eskasia, zenbait eskualdetan eraikigarritasuna erabat agortuta baitago.
- Gainera, lurralde-desproporzio handia dago lurzorua erabilgarritasunean dagokienez, eta Planak zuzendu egin nahi du hirigune handietan dimentsio handiko eragiketak martxan jarriz eta, bereziki, esku-hartzea Donostialdean eta Bilbo Metropolitanarrean indartuz, Gasteizen garatzen ari den jardun handia



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

osatzearen kaltetan izan gabe. Donostiako Antondegi, Auditx Akular edo Loiola bezalako edota Bilbo, Sestao edo Getxoko Bolueta, Garellano eta Zorrozaurre bezalako jardunek, Gasteizko Salburua eta Zabalganako garapenak osatu behar dituzte, non beharrezkoa den sektore berriak identifikatzen jarraitzea, adibidez Hegoaldea deitutako gunean kokatuta dagoena.

- Etxebizitza Bideratzeko Planak, gainera, jardun-ildo nagusietako gisa hartzen du lurzoru eta auzo degradatuak lehengoratzea, eta hori egiteko zenbait jardun aurreko paragrafoan adierazi dira. Beraz, lurzoru-estrategia berria, etxebizitza berria sustatzeko jardunen eta birgaitzeari eta hiri-eraberritzeari loturik aurreikusitako jardunen arteko lotura gisa baliagarria izango da.
- Lurzoru eraikigarriak lortu eta kudeatzeko jardunei dagokienez, Etxebizitza Sailak eta Orubide Sozietateak zeregin berria izan nahi dute Etxebizitza Bideratzeko Planean, eta beren jarduna bolumen handiko eragiketetan oinarrituko dute, daukaten tamainagatik konpromiso estua eta parte-hartze zuzenagoa eskatzen dutelako, baita **gizarte-eduki handia** duten lurzoru-eragiketetan ere, batez ere eraberritzea lantzen dutelako eta lurzoru horietan egingo diren etxebizitzaren sustapenetan alokairu publikoko etxebizitza asko eraikiko direlako.

B.3 koadroa 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren lurzoru lortzeko* helburuak, agenteen arabera

	Kopurua	%
Saila	8.000	33
Orubide / VISESA	8.000	33
Udalak	8.000	33
Guztira	24.000	100

* Helburu ponderatuak: hiri-lurzorua pertsonen berralojatzearekin, 2 ponderazioa; industriarako hiri-lurzorua bizitegiarako pasatzen dena, 1,5 ponderazioa; aurreko karga horiek ez dituen hiri-lurzorua edo urbanizagarria, 1 ponderazioa; lurzoru ez-urbanizagarria edo Lurzoru Ondare Publikotarako lurzoru erostea, 0,75 ponderazioa.

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza

- Gizarte eta hirigintza mailan degradatuta dauden hiriguneen lehengoratzeak, Eusko Jaurlaritzak bultzatu nahi duen jardun oso bat eskatzen du, auzo horiei balioa emateak oso eragin garrantzitsua duelako hirigune horietan (Ikus 5. ARDATZA informazio gehiago lortzeko). Ildo horretan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak sustatzaile pribatuei eman ohi zaizkien lurzoru erosteko laguntzen sistema ezabatuko du, eskaria oso txikia izan delako, eta Udalek bultzatzen dituzten hirigintza eraberritzeko proiektuak bultzatuko ditu.
- 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren barruan aztertu beharreko beste jardun-ildo bat, planeamenduaren balizko bidentsifikazioa da, garatzeke dauden bizitegi-erabilerako sektoreetan dentsitate handiagoak planteatzeko aukera egon daitekeelako. Ildo horretan, EAEko ekainaren 30eko Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeak lehengoak baino dentsitate handiagoak ahalbidetzen ditu, batez ere lurzoru urbanizagarrian. Lurzoruaren erabilera intentsiboaren



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

eta hirigintza-garapenen hiri-kalitatearen artean oreka mantenduz, Sailak birdentsifikatzeko neurriak bultzatuko ditu Udalekin elkarlanean.

- Era berean, aipatu behar da Zuzkidura Alojamen duen irudi berriak ekipamendu publikoetarako erreserbatutako lurzoruak bizitegi-helburuarekin aprobetxatzea ahalbidetzen duela. Horrela, bizitegi-alojamen duen premia handia duten auzo edo udalerrietan, lurzoru horiek beste edozein erabilerarako aurreikusita ez badaude, sustapen-mota berri horrek biztanleen oinarrizko premia bati erantzuten lagunduko du.
- 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planak, bere kudeaketa-ereduari loturik, Orubideren irudia indartu nahi du lurzoru-hornitzaile gisa, horretarako EAeko ekainaren 30eko Lurzoruari buruzko 2/2006 Legean aurreikusitako tresna berriak aprobetxatuz, eta bereziki agente urbanizatzaile gisa bere gain har ditzakeen eskumenei loturik. Horrela, Orubidek hiru jardun-ildo izango ditu: lurzoruaren lortzea bere garapenak gauzatzeko, VISESAren "project manager" izatea sozietate horrek lurzoruaren erosten duen jardunetan, eta Udalen agente urbanizatzailea edo laguntza aditua.
- Gorago adierazi diren jardun guztietan, Sailaren eta adskribituta dauden sozietateen egitekoa izango da Udalen laguntzaile estua izatea (3. ARDATZA) bizilagunen etxebizitza-premiei erantzuteko jardunetan, kasu bakoitzean Udalen bakoitzak behar duen laguntza-mota eskainiz.
- Gainera, Udalek lurzoruari buruzko lege berriari hartzen dituzten konpromisoei dagokienez, Sailak diru-laguntza ildoekin lagunduko ditu udalen kudeaketak, bai plangintza lege-zehaztapen berrietara egokitzeko nola udalen lurzoru-ondare publikoak eratzeko.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

B.4 koadroa 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren sustapen-helburuak*

	<i>Kopurua</i>	<i>%</i>
ALOKAIRUA	8.500	31
Alokairuan iraunkor dagoen parkea	3.000	11
Zuzkidura Alojamentuak**	1.600	6
+ <i>Saila</i>	1.200	4
+ <i>Udalak</i>	400	1
Etxebizitza Sozialak	1.400	5
+ <i>Saila</i>	600	2
+ <i>Udalak</i>	800	3
Alokairuan iragankor dagoen parkea	5.500	20
Etxebizitza Sozialak	2.000	7
+ <i>Alokabide (etxebizitza sozialen erosketa)</i>	2.000	7
BOE	3.500	13
+ <i>Alokabide (BOEen erosketa)</i>	750	3
+ <i>Udalak</i>	1.750	6
+ <i>Pribatuak</i>	1.000	4
JABETZA / AZALERA ESKUBIDEA	18.500	69
BOE	15.500	57
+ <i>VISESArekin hitzartuak</i>	3.000	11
+ <i>Sailarekin hitzartuak</i>	2.000	7
+ <i>Udalak</i>	6.500	24
+ <i>Pribatuak</i>	4.000	15
Tasatu Autonomikoak	750	3
+ <i>VISESA</i>	750	3
Udalen Tasatuak	2.250	8
+ <i>Udalak</i>	1.500	6
+ <i>Pribatuak</i>	750	3
GUZTIRA	27.000	100

* Eusko Jaurlaritzak bere gain hartutako eta Udalei eta sustatzaile pribatuei proposatutako helburuak.

** Zuzkidura-alojamenduen erregimena ez da alokairua izango, baizik eta gozamen edo usufruktua, biztantzeko eskubidea eta abar, baina modu horretan islatzen da koadroaren edukiak sinplifikatzeko.

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

2. ARDATZA ALOKAIRUAREN LEHENTASUNEZKO PRESENTZIA ETXEBIZITZA BABESTUEN SUSTAPENEAN¹⁵

2.1 HELBURU NAGUSIAK

- Alokairu-politikei dagokienez, Etxebizitza Bideratzeko Planak alokairuko etxebizitza babestuen parke iraunkorra handitzeko helburua du, alde batetik, alokairuko etxebizitza babestuen sustapena bultzatuz, eta bestetik, etxebizitza erabilien alokairua errenta babestuen mailan lortzera bideratutako neurriak sustatuz.
- Zehaztuz, alokairu babestuari dagokionez 7.660 maizterretik 19.160ra igarotzea da helburua, helburuen koadroan adierazten den bezala.

B.5 koadroa EAEko alokairu babestuko parkea dimentsionatzeko helburua

(etxebizitza kopurua)

Urtea*	Alokairu babestuko parkea**	Etxebizitza babestuen parkea	Alokairuko parkearen kuota %
2001	740	36.029	% 2
2005	7.660	49.679	% 15
2009	19.160	88.201	% 22

* Urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak.

** Zifra horietan Etxebizitza Sozialak eta Alokairuko BOE etxebizitzak, Biziguneren etxebizitzak eta Zuzkidura Alojamenduak bilduta daude.

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza

- Modu osagarrian, alokairu-politikek aukera eman behar dute alokairu babestuko parkearen egitura anitza izateko erabilera- eta gozamen-baldintzetan, etxebizitza-premia koiunturalei nola estrukturaleri erantzun ahal izateko.
- Plan honek zuzenean aurre egiten dio alokairu-jardunen finantzaketaren arazoari, politiketan baliabide publikoen efikazia eta eraginkortasuna handituko dituzten tresna berriak eskainiz, eta era horretan, jardunen bolumena *ceteris paribus* handituz.

¹⁵ Ardatz honen edukia 6. ARDATZEKO edukiekin batera aztertu behar dira, oso lotura estua dutelako.